

opusdei.org

Eskerrik asko, Jutta!

Unibertsitateko Teologia
irakaslea

2010 Aza 15

Ostiralean, azaroaren 5ean, goizeko 8tan, joan zaigu Jutta Burggraf, Unibertsitateko Teologia irakaslea. Klinikari hil da, aurtengo -2010eko apirilean Teologia Sinposioaren buru zela aurkitu zioten leuzemia larri baten kontra bere indar guztiz eta Jaunagan uste osoa jarritz borrokatu ondoren. Sinposioa, konbertsioaren gaiari eskainia, goi-mailako teologo espezializatuak eta, haiekin batera,

konbertsioaren lekuko izanak bildu zituen.

Gaitzak ahulduta eta indargabetuta dagoeneko, berarekin igaro genituen jardunaldi haiek eta hunkiturik gelditu ginen Mariqui Dueñas, Paola Benetti eta Etsuro Sotooen, Familia Santuaren eskultorearen narrazioekin, Jutta jasaten ari zen gaitzaren sintomak ohartu gabe. Alderantziz, berak ohi zuen bezala, beti irribarre zabal batez eta arreta handiz hartzen zuen gure edozein zalantza edo iradokizun, baita gogoz mintzatzen zen jardunaldiek sortzen zituzten gogoetei buruz. Eskerrik asko, Jutta, eskaini zenigun azken ahalegin horregatik, zure ingurukoen alde eman duzun bizi emankorraren luzapena, hain zuzen!

Teologoa, aspertu gabe Egia bilatzen zuena eta Ongiaren jarraitzaile sutsu, bere zereginak eta bere biziak askatasuna zuten buru. Bilatu,

hautatu eta bere indar guztiak hartu zuen helburua lortzen jartzen zituen. Halako aisetasuna ematen zion bere gogoz egindako hautapen honek, ez zuela ematen aurrera eramatea kosta zitzaionik. Horrela eman zituen eskolak. Horrela idatzi zituen bere liburuak, ideia erakargarritz eta kutsu berri batez beteak. Arretaz irakurtzen zituenak jarrerak ikasi eta bertuteak lantzen ikasten zuen.

Bere adiskideen adiskide, bihotza mundu zabalera irekita, Juttarentzat, pertsonak zeuden beste gauza guztien aurretik. Hauxe, esaera ezagun bat badirudi ere, beragan egunero bizi ohi zuen errealitatea zen. Teologia Fakultateko unibertsitario guztiek baieztatu dezakegu: Lankideek, ikasleek, hainbat zerbitzuetan lan egiten dutenek, Fakultatearen bizitza aurrera joan dadila posible egiten dutenek: denen asmo, lan, oinaze eta

aldi pozgarrietan parte hartzen zuen Juttak.

Ezeren ez inoren aurrean ez zen axolagabe agertzen. Pertsona bakoitzaz arduratzen zen. Ahul eta behartsuenen alde zuen joera berezia. Bere bulegoaren atea zabalik zegoen denontzat. Baina, norbaitek lehentasuna izatekotan, ikasleak ziren horiek: norbaitek deitzen bazion, Juttak begirada batez adierazten zion aurrean zeukan lankideari, lekua utzi behar ziola Fakultatera laguntza eske etorri berria zenari, edota orientazioa behar zuen doktoregaiari.

Esan bezala, Juttak askatasuna maite zuen, eta bera ere askatasun sendoko pertsona zen, beraz, ona. Izenondo hau letra larriz idazteko gogoz nago: ez dut egingo. Irakur dezala bakoitzak nahi bezala. Horregatik ez nau harritzen teologo alemaniar honek utzi badigu, teologo eta

alemaniarra den Aita Santu batek
Espainiara etorri behar zuen
egunaren bezperan uztea: berari
bidea prestatzeko zerbitzu bailitzan.
Horrela ikusten dut nik.

Klinikako beilatokian emandako
meza batean, gorpua aurrean
zegoela, apaizak esan zuen Juttaren
ikasle asko zeuden nazioarteko
Seminario batean bizi zela.

Azaroaren 4an, gauez, Jutta egoera
larrian zegoela jakin zutenean, eta
hilaren lehenengo ostiral bezpera
zenez, Sakramentu Santuaren
aurrean egin zuten gaueko beila,
Juttarengatik eskatuz Jaunari. Hil zen
egunean, agian, berak “itzuli” egin
die mesedea: haietako ikasle bat
bizikletan Teologia Fakultatera
zeturrela, auto batek harrapatu zuen,
eta hamar metro gora egotzi zuen. Ez
zitzaion ezer gertatu. Eskerrik asko,
Jutta, mesede honengatik ere.
(Nafarroako Unibertsitateko
Webgunea)

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/eskerrik-asko-jutta-2/](https://opusdei.org/eu-es/article/eskerrik-asko-jutta-2/) (2026
Ots 22)